

Donostia, 2017ko urriaren 6a

IDAZKARITZA NAGUSIARI

ANBULATORIOETAN PEDIATRIA ZERBITZUAK HOBETZEARI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, anbulatorioetan pediatria zerbitzuak hobetzeari buruzko MOZIO hau aurkeztu nahi du, UDALBATZAN AZTER DADIN.

JUSTIFIKAZIOA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuen arabera, Gipuzkoan Pediatriako espezialista bakoitzak 967 haur artatzen ditu batez beste. Une honetan, guztira 97 mediku daude Osakidetzaren lehen mailako arretako zentroetan, 0 eta 14 urte bitarteko 93.800 adingabe artatzeko.

2007an, Euskadiko Sendagileen Sindikatuak eta Osakidetzak akordioa egin zuten, eta haren arabera kontsultako ezin ziren 1.000 adingabe baino gehiago artatu. Alabaina, Euskadiko anbulatorio askotan akordio hori ez da inola ere betetzen. Hala, aipatutako 2007ko akordioan ezarritako muga gainditzen duten osasun zentroak baditugu Donostian. Zehazki, Amara Berriko osasun zentroan, 4 pediatria daude 4.912 paziente artatzeko; beraz, ratioa 1.228 pazientekoa da pediatriako. Anbulatorio horren ondotik, pediatriako paziente gehien duen anbulatorioa Alde Zaharrekoa da, profesional bat baitago 1.226 adingabe artatzeko, eta Amara Erdialdekoak ere, 1.086 adingaberekin, gainditu egiten du akordioan ezarritako muga, alegia, kontsultako 1.000 adingaberena.

Euskal Herriko Lehen Mailako Pediatria Elkarteak salatu egin du hori. Izan ere, nabarmentzen du egoera ez dela arazo puntual batengatik sortu; erretiro ugari izan diren aldi batean heldu da, eta Osakidetzak ez ditu postu huts guztiak bete.

Egoera horri gehitzen zaio pediatriako espezialistak falta direla, eta, horregatik, postu horien %15 medikuntza orokorreko medikuekin betetzen dira. Gaur egun, Euskadiko 40 zentrotan pediatriako kontsultetan diharduten 50 familia mediku daude. Azpimarratu beharra dago medikuntza orokorreko espezialitatean pediatriako praktikak bi hilabetekoak direla soilik, eta pediatrek, berriz, haur osasunari buruzko lau urteko prestakuntza espezifikoa jasotzen dutela.

Osasun arloko profesionalen elkarteek hainbat neurri proposatu dituzte gaur egungo egoera arindu eta zerbitzuaren kalitatea hobetzen laguntzeko. Erakunde horiek administrazioekin, kasu honetan Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin, bilerak egiten dituzten arren, ez da aurrerabiderik izan. Horregatik, arloko arduradunei dei egiten diegu ekarpen guztiak kontuan har ditzaten eta elkarrizketa mahai bat sor dezaten, gaur egungo egoera konpondu eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu:

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio elkarrizketa mahai plural bat sor dezala, osasun sektoreko profesionalak barnean hartuko dituen eta lehen arretako zentroetako pediatria zerbitzuetan gaur egun dauden arazoentzako konponbideak proposatuko dituen, Donostiako haurrak behar bezala artatuko dituen kalitatezko zerbitzu publiko bat lortzeko xedeaz.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.